

Laudio Udala

Laudio Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko abuztuaren 4an hartutako erabakiaren laburpena. Erabaki horren bidez onartu ziren irabazi asmorik gabeko bertoko elkarteek hezkuntza, berdintasuna eta gazteriaren arloan jarduerak gauzatzeko diru-laguntzak emateko 2017ko deialdia eta oinarri arautzaileak.

Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen, alegia, Diru-laguntzen Lege Orokorren 17.3.b eta 20.8.a artikuluekin bat, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Testu osoa Diru-laguntzen Datu Base Nazionalen kontsulta daiteke <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>.

Lehenengoa. Onuradunak.

Hezkuntza, berdintasuna eta gazteriaren arloan aisialdi eta denbora libre hezitzaileko jarduerak, informazio-jarduerak, prebentzio-lanak eta arreta nahiz gizarteratze-ekintzak gauzatzen dituzten irabazi-asmorik gabeko elkarteak.

- Legez eratuta eta inskribatuta egotea Eusko Jaurlaritzako Elkartearen Erregistroan.
- Euren programa eta aurrekontuak botere publikoen kontrolpean jartzea.
- Bermatzea botere-organoen osieran zein funtzionamenduan barne-demokrazia parekidea dutela.

Bigarrena. Xedea.

Irabazi asmorik gabeko elkarteek sustatutako hezkuntza, berdintasuna eta gazteriaren jarduerak finantzatzeko diru-laguntzak, betiere jarduerak Laudio udalerrian egiten badira edota udalerrirako interesa badute.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak.

Laudio Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak onartu zituen 2017ko abuztuaren 4an. 2017ko abuztuaren 18an Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa.

Deialdiaren ekonomia-zuzkidura hau da:

- 3.450,00 € hezkuntza arloan gauzatzen dituzten ekimenentzako.
- 10.100,00 € aukera-berdintasunaren arloan gauzatzen dituzten ekimenentzako.
- 800,00 € gazteentzako gauzatzen dituzten ekimenentzako.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea.

Hilabete eta erdi Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuta agertu ostean.

Laudio, 2017ko abuztuak 17.

Alkate-udalburua, Jon Iñaki Urkixo Orueta.